

## Antzzez



LETRA JORRAN @ DIEGO MARTIARTU

Irakurle zorrotzen onespina jasoko bazuen, idatziko zuenak bizia behar-ko zuen. Bizia... hala agindu zion bere buruari X-k, eta horretan tematu zen luzaz, harik eta berak idatzitako hizkiek bizia hartu zuten arte.

Hego-haizeak zakar jotzen zuen gau batez gertatu zen. Tripak orroka, loarekin bat egin ezinka zebilen X, behatz puntetan kilimak nabaritu zituenean. Besoa luzatu eta gau-mahaiko argitxo piztu zuen. Orduan, izararen ertzari atzamar artean ondo eutsiz, burua otzatozta aterata, ikusi zituen hizki itxurako milaka txingurri beltz beragana etortzen. Hizki bidez haiek idazmahaiko orrietatik lurreraino lerratzen ziren eta handik, prozesioan ondo-ondo antolatuta, izara zurian gora igotzen. O hizkiak jirabiraka zihozten; s-ak sigi-saga; m-ak

bizkor-bizkor, hiru hankakoak izaki; h-ak atzean hasperenka... Iritsi ziren X-ren begi izutuen parera eta gelditu egin ziren. Jarraian, hogeita bi txindurrik urrats bat egin zuten aurrera, ondoko esaldia osatzeko: I-P-U-R-D-I-A-R-E-K-I-N I-D-A-Z-T-E-N-D-U-K. Egunsentiarekin batera etorritako bidetik bueltatu ziren, izaratik paperetara. Jaiki zen X ohetik eta bezperan bukatu berri zuen ipuinaren azken esaldiari erreparatu zion: «Eta printzeak errege hil zuen ezpataz, honek bere pizta jan baitzuen». Tira, gosearen eskua ere ipuinean nabari: urdail hitsak nahi ditu pitzak, eta ez hitzak.

Esan gabe doa: harrezkero gauza biziak idazteak ez du X bater ekeztatzen, eta idatzi ere gero eta gutxiago idazten du, idatzitako hitzak, haserretuz gero, oso mendekatiak dira eta. Orain taxider-

mista sartu da eta zomorroak ehizatzen eta diseatzen ematen du egunaren zatirik handiena.

X-ren istorioaz gogoratu nintzen iragan igandean irakurritako berri baten harira. Irakurle despistatuena ere berehalaxe antzemango dio gauza bien arteko lotura estuari. Espainiako egunkari-rik ustez serioenean zetorren berria, azaleko orrialdean. Albistearen arabera, islamiar terrorista bati agenda bat atzeman zioten eta bertan euskal preso «ezin-eman arriskutsu» biren izenak zeuden: *Ariet Iraqi* eta *Unaid Parot* (sic). Kazetariak omen, eta literatura idazten dihardute; ipurdiarekin, jakina.

Portzierto, «arabeskuara» ez da atzo goizeko asmazioa. Guri, amama zahar-rrak sarritan esaten zigun: «Jan barik jun barik jaizu jan...!».



## 'Urruzunotar' berrien poesia eta prosa

'URRUZUNO LITERATUR LEHIAKETA 2004'

Egilea: Askoren artean.

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritza.

Urtea: 2004.

Egun idazle ezagun diren Eusko *Urruzunotarrak* izanek dira; hots, irakaskuntzaertaineko ikasleentzat antolatutako literatur lehiaketan irabazle izanak, dela poesia arloan, dela prosakoan. Ohi bezala, Eusko Jaurlaritzak aurtengo garaileen lanak argitaratu eman ditu.

Familia hizkera komun eta partitu batean ehuntzen diren mintzoz egina da, senideok baino ulertzen ez duten hiztegi berezi eta kanpotik ulertezin batez, sendi barruko oroi-pen eta jazoera sare halako baten ondorio denez gero. Aurkezpen handiren beharrik ez duen Fernando Rey itzultzaileak euskaraturiko *Gure etxeko kontuak* liburuan Natalia Ginzburg guraso, neba-arrebak eta lagunak gomutara ekartzen hasiko da etxeko berba eta esakuneetatik tiraka, baita, bidenabar, Sendia deritzogun izate misteriozua aztertzen eta mataza erabat askatzea apukoz, inguruko gizarte arakatzen ere. Dena elekeizaten duten osagairik antzemanekin enaren ildotik, hizkuntzalariek edo psikolinguistek nekez deskriba dezaketen hizkuntzaren alderik berezietatik abiatuta. Zer da familia, azken buruan, ahaideak elkarriztasen dizkion berbazko lika hori barik?

Gertaera txiki eta minimoen bitartez, gizakiaren eta gizartearen arimak printzaz printza ematen ditu, inpresionismo ezari-ezari-ko batez literatura guztiz modernoa egiteraino. Idazlearen memoria munduaren neurgarri, gainerako idazlanak ulertzeko giltza.

Lanaren xume itxura gorabehera, nahiz eta barruan tragedia handi ere handi bat edo beste azaldu, *Lessico familiare* liburuak hain izan zuen eragin handia italiar belaunaldi berrietan, non, azkenean, kritikarien begiak Nataliaren beste lanei begiratzen hasi ziren. Egunkarietan idazteko bidea ere irabazi zuen bere familiaren arima ele biluzgorritan jarriari esker. Ia hil arte



'GURE ETXEO KONTUAK'

Egilea: Natalia Ginzburg.

Itzultzailea: Fernando Rey.

Argitaletxea: Igela.

Urtea: 2004.

Jatorrizko izenburua:

'Lessico familiare'.

goiz alban idaztera jaikitzen den andre edadetuaren irudi topiko-arekin. Orria, kulunka aulkia eta artean lotan dantzan Italiari idazten dion idazlea, urruntasun apur baten beharreak, bizi izan duenaren gainean berba egingo badu. Lehenaldiarekin koherentea izateko, etorkizunari begira bizi behar, gaurko az ahaztuta. Zelan berba egin lagunak, senideak eta belaunaldiko-ak hilez doazela ikusita? Morante zahar etxean hil da, Italo Calvino eldarnioaren bisitazioe jo-ta joan da, Sciasciaren hiletako omenaldira joan behar mingotsa... Elkarrekiko fidelen taldea murriztu doa gerra, jazarpena eta ia iraultza moduko bat bizi izana gorabehera.

Itzulpen honetan ere, idazleak bere barne-barneko irakasgai pribatuaren ematen digu lezio: biziz-ian ikasten dugun apurtxo, gure egin eta esan xume bezain hauskorretan taupadaka diharduen azken misterioa, guztiei errespetatu beharreko isil gogodea, giza tragedia guztietan

nahitaez, itzulpengintzara gaktza, hortik begiratuta, sendiak bere burua mundura itzuli behar duelako, eta mundua, etengabe, bere barne hizkerara bihurtu ere. Bost seme-alabetan txikiena izanagatik, horrek bidea ematen ziola gainerakoei behatzeko, halatan, egiari traiziorik egin gabe, oroitidazkia eleberria balitz bezala idazteko, baita hiru hilabetean izkiriatu ere. Horrelako literaturak gizaki xeheen eguneroko gertaerak, bizitza, heroi eleberririk bihurtzen laguntzen digu. Eskuz paratu zuen lehenengo idazketa, txiki-txikitatik mainadaren albiste emateko guraria betetzeko. Autobiografiek, Ginzburgen iritziak, arriskurik ere badute: bestela baitakoan, fikzioa benetako jazoeren gomutekin nahastuz joatea. Hurkoen berri ematen ahal-egintzerakoan, oster, errealtateari, egiazkotasunari estu oratu arren, berehala konturatu zen askeago idatz zezakeela, idazketa libreago egiteko modua zuela. Azken buruan, txikerretatik bertatik, jazoeren lekuko izan edo gauzak egiterakoan, nagusitan haiek guztiak idatziz jarri behar-ko zituela zerabilen gogoan. Ederto bete zuen geroak!

Paveseren suizidioaren gainean berberak idatzirikoak aipa litezke Nataliaz esateko: «Bere bizitzaz haratago

ere pentsatu zuen, gure geroko egunez, kontuan hartu zuen nola jokatu zuen jendeak bere liburuaren eta bere oroitzapenen aurrean, heriotzaz haratago begiratu zuen». Buruan, gogoan Herio erabili arren, bizitza euzurte maite dutenen antzera jokatzen. @ Karlos del Olmo



## Etnotografiaren eta euskararen loturak

'ZUZENTZA ETA ESKUBIDEAK EUSKARAREN OROITZAN'

Egilea: Felix Zubiaga.

Argitaratzailea: Eleiker.

Urtea: 2004.

Euskararen lekukotasunak elementu ezagun askoren berri ematen duela dio Felix Zubiagak, oraindik orain kaleratu duen saiakeran. Ohi bezala, Internet sarean ere eskuragai jarri du liburuko testua, osorik ([www.todoebook.com/Erroteta](http://www.todoebook.com/Erroteta) helbidean).



## Hiriart-Urrutiren lana ezagutzeko

'NI KAZETA-EGILEA NAIZ'

Idazlea: Jean Hiriart-Urruti.

Aipaltzailea: Xabier Altizbar.

Argitaletxea: Labayru Ikastegia.

Urtea: 2004.

Jean Hiriart-Urruti euskal kazetaritzako aitzindari eta erreferentzia gisa errebindikatu du Xabier Altizbarrek aipaltutako liburuan. Horretaz gain, Hiriart-Urruti iritzi artikuluek gain beste genero asko landu zituela erakutsi du: albisteak, kritikak, istorioak...

## GUREKO BERBETA

GERTAERA TXIKIEN BIDEZ, GIZAKIAREN ETA GIZARTEAREN ARIMAK PRINTZAZ PRINTZA EMATEN DITU, IMPRESIONISMO EZARI-EZARIKO BATEZ OBRA GUTZIZ MODERNOA EGITERAINO

egunkari zutabetxoetan etxeko kontuak azaltzeko erabiliriko estiloa bera baliatu zuen, itxuraz noraezeko eta arretarik gabea, benetan, era ezkutu batean zirikatzaila.

Idazleak bere burua atso zahartzat aurkezten du, beharbada denok erosoago senti gaitzen

dautzan poesia eta elkartasuna topatzeko bidea.

Idazlana familia hebraiko baten bizialdia dugu. Hori esanda ere, ez dugu ezer argituko, familia bakoitza bat eta bera, errepikatzen gaitza, hiztegiaren, izan ere, mundu ikuskeraren bereziaren jabea denez gero. Eta horrek,